

Frantziako Parlamentuak hizkuntza gutxituak baztertzea ebatzi du

Lege estatusa eskatu duten diputatuen arabera, hizkuntza gutxituen ituna izenpetzeko hitza jaso dute

AITOR RENTERIA
Baiona

Hizkuntza gutxituek Frantziako errepublikaren murraren kontra jo dute berriz ere. Harresi bat balitz bezala, Frantziako Parlamentuak ez du onartu hizkuntza gutxituen estatusa aztertzea, Konstituzioaren aldaketa dela-eta egiten ari den eztabaidan. Lisboako Ituna indarrean jarri ahal izateko, Frantziak aldaketak egin behar ditu Konstituzioan. Egoera hori baliatu nahi izan du UMP Herritarren Mugimenduaren Aldeko Batasuneko diputatu talde batek hizkuntza gutxituei lege estatusa onartzeko.

Egonezaren marmita bor-borren dabil aspaldian eta François Fillon lehen ministroak nekez atxikiko duen hitza eman du, zuzenketa aurkeztu duten UMPko diputatuen arabera, proposamena bertan behera uztearen truk. Diputatuen hitzetan, martxoko hauteskundeen ondoren Frantziak Europako hizkuntza gutxituen ituna izenpetuko duela esan die. Hala, argudio hori emanda, zuzenketa bertan behera uzteko eskatu diela diote hautetsi horiek.

Konstituzioaren aldaketa Parlamentuak onartu arren, ondoren Senatuak aztertu beharko du, osoko bilkuran bi erakundeek azken bozketa egin aitzin. Antza, hizkuntza gutxituen aipamenak desadostasunak sortu eta prozedura guztia gelditu zezakeela azaldu zuen Fillonek.

Beraz, egoerak lehengoan segituko du. Hizkuntza Gutxituen Ituna izenpetu arren, Frantziak ez zuen ondoren berretsi, eta, beraz, praktikan ez du eraginik. Aldiz, lege mailako trabak hor daude, bertzak bertze, Konstituzioari bigarren artikulua. Azken horrek dio Frantziako hizkuntza bakarra frantsesa dela. Puntu horretan oinarrituz, Frantziak behin eta berriz ukatu du hizkuntza gutxituen onarpena, legez kontrakoa dela argudiatuz. Europako Hizkuntza Gutxituen Ituna izenpetu zuelarik ere, ez zuen osotasunean egin eta eragin gutxi izan zuten 35 aukerak onartu zituen.

Isatsari hozka egiten dion legez-kumearen irudia ikusi dute Fillonen hitzetan zuzenketa aurkeztu duten diputatuek. Marc Le Fur Frantziako Parlamentuko presidenteordeak erran du, sekula ez dela une egokia hizkuntza gutxi-

tuen arazoa aztertu eta eztabaidatzeko. Izan ere, azken mende erdian 53 saialdi egin dira hizkuntza gutxituen estatusa argitzeko, eta guztietan kontrakoa izan da emaitza. Europako ituna izenpetu ahal izateko, Konstituzioaren aldaketak beharko lirateke, eta une hau aski egokitzat zuen Le Furrek moldaketa horiek egiteko.

LEGE LABIRINTOA ETA LOBBYAK. Alain Lamassoure Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko presidentearen eskariz, Frank Moderne

adituak lege mailako aukerak aztertu zituen. Lege zirrikituak baliatuz, euskarari gutxieneko estatusa aitortzeko aukerak ikertzeko ardura hartu zuen. Frantziako Konstituzioaren bigarren artikulua egileetako bat da Lamassoure, eta sekula ez du aurkeztu ikerlan horren emaitza.

Iaz Kanbon (Lapurdi) bildu ziren hizkuntza gutxituetako ordezkariak, EKE Euskal Kultur Erakundeak antolatutako Topaketetan. Alsazia eta Bretainiako ordezkariak azaldu zuten prozedura bat

antolatzen ari zirela, tokiko hautetsiei presioa egin eta aldaketak zuzenketa aurkeztu ahal izateko. Lobbyak eta prozedurak ezagunak dira. Automatikoki, hauteskunde bezperak baliatzen dira hizkuntza gutxituen aldeko presioa egiteko. Jean Grenet eta Daniel Poulou Lapurdiko diputatuek elez sostengatu izan dituzte azken saioak, baina bozkatzeko unean ez dira Parlamentuan, edo Gobernuaren azken orduko proposamena onartzen dute emendakinen alde ez bozkatzeko.



Nicolas Sarkozy Frantziako presidentek lege bat osatuko zuela agindu zuen Presidentetzarako bozetan. Alta, Europako hizkuntza gutxituen ituna izenpetzearen aurkakoa dela erran zuen.



Baionan egindako euskararen aldeko elkarretaratzean, haurrak pankarta baten atzean, artxiboko argazkian. GAZDIA IROZ / ARGAZKI PRESS

Norabide egokian egindako urratsen beha dagoela erran du Max Brissonek

EEPko presidente gisa ezin duena eskatu Kontseilari Nagusi gisa begi onez ikusten duela erran du

A. R.

Max Brissone Euskararen Erakunde Publikoko presidentek eta Miarrizteko Kontseilari Nagusiak zuhurtziaz hartu du François Fillon lehen ministroak ustez egindako iragarpena eta lege aldaketa eragin nahi duten diputatu taldea-

ren saiakera. Zuzenketa proposatu duen taldeko kideak bezala, Brissone UMPko kidea da. «EEPko presidente gisa ezin dut adierazi zer nahi dudana, eta zuzendaritzak finkatu dituen ildoak beteaz behar ditut», azaldu du. Aldiz, Kontseilari Nagusi gisa «norabide egokian egindako urratsen beha» dagoela jakinarazi du.

Egoerari erreferentzia eginez, eskizofreniaren aipamena egin du Brissonek berak, hautetsi gisa defendatzen duen lege aldaketa ezin duelako sostengatu EEPko presidentek gisa. Kontseilu Nagusiak

gain, Akitaniak eta Frantziak osatzen dute EEPko zuzendaritza.

Zuzenketa aurkeztu duten taldekideen alderdi berekoa da Brissone eta zuzenketa indargabetu duen Gobernuari alderdikidea. Hautetsi gisa «urrats onen» aldekoa dela dio, eta EEPko presidentek gisa Gobernuak ezartzen dion ildoan lotuta dagoela.

Fillonen iragarpena prentsaren bidez jakin zuela azaldu du, herenegun *Le Journal du Pays Basque* egunkariak argitaratu artikuluar erreferentzia eginez. «Prentsak badio udaberrian Europako hiz-

kuntza gutxituen ituna izenpetuko duela, nik sinetsi behar diot, ez dut informazio zuzenik».

OZEN ETA EGUN ARGIZ. Marc Le Fur UMPko kideak atzo gauerdiz egin behar zuen zuzenketaren defentsa. Brissonek erran du euskararen aldeko lege baten aldekoa bada ere, proposamena «egun-argiz eta jukutriarik gabe» eztabaidatzea nahi duela. Hizkuntza gutxituen ofizialtasuna behin eta berriz erreplikatzeko, eta EEPko presidentek gisa Gobernuak ezartzen dion ildora arren, ofizialtasuna hitza tabua da hautetsien ahotan, baita Brissonen kasuan ere. Alta, helburu jakinik eta neurgailurik gabeko hizkuntza politika burutu behar du horrekin. Muga horiek kenduta berriz hizkuntza politika bat egin daitekeela esaten du.